



«CIT aurrera ateratzea dugu helburu, ekitaldiak mantentzea»

TOLOSA ▶ Azken batzarrean,
«etxeko» zuzendaritza talde berria
sartu da, nahiko gaztea

AUKERAK ▶ CITek «gauza asko
egiteko aukera» ematen dituela dio
Mendikute lehendakari ohiak ▶ 2



Euskararen laguntzak murriztea salatu dute

LEITZALDEA ▶ Nafarroako Gobernuak euskararen alorrean
%40ko murrizketa egin die udalei: Horren berririk ez dute oraindik
jaso eta atzo euskara zerbitzua duten Nafarroa osoko 24 udal
—tartean Leitza eta Aresoko alkateak— eta 5 mankomunitateta-
koak bildu ziren Nafarroak Iparraldeko Euskara Mankomunitate-

ko lehendakariarkein batera Iruñean, Hezkuntza Departamentu-
aren atarian —argazkian—. Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza
Nagusiak eurekin bildu ere egin nahi ez izatea salatu zuten udal
ordezkariek prentsaurrekoan: «Gure hitza eta iritzia aditzeko ino-
lako asmorik ez dutela erakusten digu». HITZA ▶ 7

Batasunak hauteskunde kanpaina aurkeztu du

Gaur akanpada
hasiko du Anoetan eta
bihar, giza-katea ▶ 3

Etzi, Aizkardiren 27. mendi ibilaldia

06:30ean abiatuta,
43 kilometro egingo
dituzte partaideek ▶ 4

Auto lasterketa izango da bihar

15:00etan abiatuko
da Azpeititik eta lau
ordu iraungo du ▶ 5

Areto futbol taldea, urrezko puntuen bila

Partida erabakiorra
izango da, aurkari
zuzen batekin ▶ 6

KULTURA ▶

Aurreko astean egin zuen Tolosako Ekinbide Etxeak (CIT) urteko batzar orokorra eta zuzendaritza aldaketa izan zen bertan; orain arte, Lucas Mendikute lehendakari zutela, horretan aritu den taldeak utzi eta eta Ana Arretxek gidatutako taldeak hartu du zeregin hori; biek in izan da HITZA JOXEMI SAIZAR

ANA ARRETXE ▶ TEE-CIT-eko LEHENDAKARI BERRIA

«Aukera izanda, profesionalizazioaren aldekoak gara, aurrera jarraitzeko bermea delako»

«Etxeko» talde gazteak hartu dio erreleboa aurreko zuzendaritzari TEE-CITen. Gainera, lehen aldiz, emakume bat izango da lehendakari, Ana Arretxe. Ardura berria hartzeko arrazoiez eta TEE-CITen etorkizunak aritu da HITZAREKIN.

Talde berria aurkeztu ezazu. Bost gara. Horietako lauk urte asko daramatzagu CITen lanean boluntario gisa abesbatzetan eta txotxongiloetan: Enrique Azurza, Rakel Etxabe, Imanol Aramendi eta ni. Lauok gainera Hodeiertz abesbatzako kideak gara. Bosgarrena Kike Zinkunegi da.

Nola animatu zarete?

CIT aurrera ateratzea da helburua, gaur egun dauden ekitaldiak mantentzea. Ez da gutxi. Jendea gero eta lanpetuagoa dago eta jende gutxi hurbiltzen dela ikusita animatu gara, nahiz eta gu ere oso lanpetuta egon: lanaz eta abesbatzaz gain, batzuk familia daukagu.

Azken zuzendaritzaren garaian aldaketa garrantzitsua izan da CITen, lan batzuen 'profesionalizazioa'.

Abesbatza lehiaketak eta txotxongilo jaialdiak urte osoan zehar lan handia ematen dute. Modu profesionalean ez bada, nor sartuko da horretan? Orain arte CITek zorte handia izan du nahiko libre zeuden pertsona batzuk dedikazio handia eskaini diotelako. Eta boluntario horiek ere zorte handia izan dute orain, gustuko lan horregatik eta gestio onari esker, diru sarrera batzuk lortzeko aukera dutelako. Horretarako aukera baldin badago, horren aldekoak gara, aurrera jarraitzeko bermea delako.

Leidor zinemako lanak laster hasiko dira. Non izango da aurtengo abesbatza lehiaketa?

Oraindik ez dakigu. Iparragirre zinema egokitzea pentsatu

genuen, baina abesbatzentzat bi sarrera egiteko eta gastu handiak egin beharko ziren. Kirolegia ere aztertu genuen, baina sabaia kristalezkoa da eta euria egiten duenean soinu handia sortzen da. Frontoian ere antzeko arazoa dago. Hondarribian egin duten kiroldegi berrian akustika ere kontuan hartu dute, baina hemen berandu konturatu gara. Elizen aukera gelditzen da, baina beste arazo batzuk ditu: ezin da sarrera kobratu, ezerosa goa da... Leidorreko lanak udan hasiko dira eta 2006ko ekainean Europako Sari Nagusia Tolosan izango da. Bertan egin ahal izatea espero dugu. Gainera edizio berezia izango da urte horretako lehiaketa, Tolosaren 750. urtemuga dela eta, ahots zurietako talde oso onekin.

Eta Euskal Herria plazako zentro berria nolako izango da?

Txotxongiloekin batera, kantu eskola moduko bat zegoen aurreikusita, baina Donostian jarri duten Musikene funtzio hori betetzen duenez, ez du zentzu handirik. Beste planteamendu bat izango du. Museoa, erakusketak, bulegoak, entseguetarako eta tailerretarako gelak izango ditu eta antzerki, kongreso, kontzertu eta proiektioetarako 250 eserlekuko auditorio bat aurrerapen guztiekin. Proiektua egina dago, baina lanak hasterako urtebete edo gehiago pasatuko da eta bukatzerako lau bat urte edo pasatuko dira.

Zumardi natur jardunaldiak antolatzen dituen taldeak CIT utzi du.

Pena izugarria da 15 urteren ondoren hori gertatzea. Dirudienez antzeko zerbitu antolatzeko asmoa dute, baina CITek kano. Natura aldetik zerbitu egin nahiko genuke. Tolosan ideia berriak baldin



J. SAIZAR

badaude, guregana etorri eta entzuteko prest gaude.

Beste ekitaldiez zer esan dezakezu?

Berdin jarraituko dute. Puntualagoak izaten dira, ez dute urte osoko lana ematen. Eskolarteko Olinpiadak arazo ekonomikoak ditu. Erraldoien bilkura datorren urtean izango da eta orain arteko taldeak jarraituko du hor. Eskulturen eta bekaren gaiekin aurreko zuzendaritza taldeak jarraituko du lanean. ◀

LUCAS MENDIKUTE ▶ TEE-CIT-eko LEHENDAKARI OHIA

«Herri batentzat oso formatu ona da CIT, gauza asko egiteko aukera ditu»

Hiru urte egin ditu Mixel Peralesek, Javier Larrazak, Juan Ignacio Azaldegik eta Lucas Mendikutek osatutako taldeak TEE-CITen zuzendaritza. Epe horren balantzeaz eta aurrera begirako asmoez hitz egiten dugu Mendikuterekin.

Zein da balantzea?

Hiru gauza garrantzitsu gertatu dira epe horretan. Alde batek ekitaldi nagusien —abiesbatza lehiaketa eta txotxongilo jaialdia— ardura handiena zuten boluntarioak nolabait profesionalizatu egin dira pittin bat. Bestetik, guk antolatutako ekitaldiarako hain garrantzitsu den Leidor zinema berrietzeko proiektua martxan dago eta uztailan hasiko dira lanak. Lehendik zetorren proiektua zen eta guk bultzatu egin dugu. Auditorio garrantzitsu bat lortuko dugu Tolosarako. Azkenik,

Euskal Herria plazako txotxongilo eta abesbatza zentroari ere bultzada handia eman zaio epe honetan. Proiektua egiteko diru dotazioa lortu da. Lanak 2007an hasita aurreikusiten dute eta aldaketa handia izango da CITentzat, bulegoa hara pasatu eta etxearen gestio osoaz arduratuko delako. **Abesbatza lehiaketaz eta txotxongilo jaialdiak zer esan daiteke?**

36 urte egin dituzte lehenak eta 22 bigarrenak. Erraz esaten da. Biek maila oso ona lortu dute eta zaila dute gainditzea, baina Leidor berrituarekin eta zentro berriarekin goraka jarraituko dute. Talde antolatzailearen erreleboa izango da konplikatu.

Ekonomiaren alorrean ahalegin berezia egiteko asmotan sartu zineten.

Halaxe da. Aurreko bi urteetan gestio defizita izan zen. Sartu ginenean, nolabaiteko profesionalizazioaren planteamendua zegoen mahaiaren gainean. Gestioaren araberako profesionalizazioa egin da. Ondo kudeatu da: ekitaldi nagusien antolaketan ardura nagusia dute pertsonak zerbait ordaintzeaz gain, CITek beste gauzetarako erabiltzeko diru gehiago lortu da. 800.000 euroko diru sarrerak lortu dira aurtan, erdia gutxi gorabehera hona etorritako abesbatzek eta txotxongilo taldeek beste herrietan egiten dituzten saioetatik eta beste erdia erakundeetan diru laguntzetatik.

Abesbatza eta txotxongiloekin batera, Zumardi natur jardunaldiek ere garrantzi handia dute. Antolatu duen taldeak CIT utzi egin du.



J. SAIZAR

15 urtetan aritu da horretan taldea. Aurtan CITek ez du Zumardi antolatuko. Hala ere, beste modu batera natur jardunaldi batzuk antolatzea ari da aztertzen talde hori.

Pena da CITek halako ekitaldi bat gaitzea.

Halaxe da. Ea zuzendaritza berriak hutsune hori nolabait betetzerik baduen, talde berria sortuz eta zerbait antolatuz.

Beste ekitaldiez zer esan?

Eskolarteko Olinpiadak bere bidea jarraitzen du, Udala eta ikastetxeekin batera antolatuz. Gure garaian hasitako erraldoien bilkura eta Jesus Elozegi bekarekin jarraitzeko asmoa dugu. Ez dakigu noiz, baina beka irabazi zuen liburua Aranzadiren Tolosaldeko Historia bilduman aterako da. Azkenik, eskulturen proiektua bukatu nahi dugu: Olarrainen dagoen Oteizaren eskultura eta akueduktua txukundu eta argiztatu, beste eskulturak identifikatu, liburua kaleratu...

Zer esango zenioke talde berriari?

Etxeko boluntarioak dira, errelebo naturala. Ondo formatuta daude eta alde artistikoa guk baino hobeto ezagutzen dute. Gu gestioan aritu gara gehiago. **Azkenik, zer da CIT zuretzat?** Herri txiki batentzat oso formatu ona. Herritarrei gauza asko egiteko aukera ematen die. Eta zuzendaritza izan garen lauan arteko giza esperientzia oso interesgarria eman dit. ◀

KULTURA ▶

Berunezko soldaduaren ipuina entzun daiteke gaur

Liburutegian izango da, 12:00etan, Haur Liburuaren Eguna ospatzeko aitzakian

I. ETXEBESTE

Berunezko soldadutxoaren ipuin kontaketa egingo dute gaur, Liburutegian, 12:00etatik aurrera. Biharko Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna —Hans Christian Andersen-en jaiotza egunean izaten da— ospatzeko antolatuta dute ekimen hori antolatzaileen hitzetan —larunbata denez, ostiralera pasatu dute ospakizuna—, eta piruleta bana banatuko zaio liburutegira hurbiltzen den haur bakoitzari urteroko moduan. Hala, OEPLI osatzen duten sekzioek (Galix, Cosell, Cata, Amigos del Libro Infantil y Juvenil eta Galtzagorri) antolatutako ekitaldian parte hartuko du liburutegiak. Laskorain ikastolako ikasleek ipuin horri buruz egindako marrazkiekin apainduko dute liburutegiak irakurgela.

GAZTERIA ▶

Biarritzeko karts-etara doaz gaur Topaguneoak

I. ETXEBESTE

Tolosako Udaleko Gazteria sailak kudeatzen duen Topaguneak Biarritzeko karts-etara irteera antolatu du gaurko. Ekimen horretan parte hartzeko alde aurretik izena emanda izatea, eta, gutxienez, 14 urte izatea ezinbestekoa dela iragarri dute antolatzaileek. 14:30erako egin dute hitzordua, San Frantzisko elizaren parean dagoen autobus geltokian. Gogoratu, 7 euro ordaindu behar direla ekimen horretan parte hartzeko.

Bestalde, Play Staion erraldoia egingo dute bihar Topagunean, eta igandean, berriz, sukaldaritza tailerra. Biak ere, 16:30etik 20:30era. Ekin-tza hauetan parte hartzeko euro bat ordaindu behar da.

EAE-KO HAUTESKUNDEAK ▶

Batasunak «ilegalizazioaren aurkako» asteburura deitu du

Eskubide zibil eta politikoen alde egingo dute; Batasuna bozkatzuz «bakearen alde» eta «ilegalizazioaren kontra» egiten dela diote Tolosaldeko ordezkariak



Eskualdeko Batasuneko kideak, herenegun, Joxi Zabala eta Joxean Lasaren monolito aurrean. J. SAIZAR

IRATXE ETXEBESTE

«Aldaketa politikorako garaia heldu da Euskal Herriarentzat, eta hiru faktorek agertzen dute hori: estatus politiko ezberdinen krisiak, etorkizunari buruzko eztabaidari begira proposamenak ugaltzeko eta herri kantsulta eztabaida politikoko kokatuta dagoela. Lehentasunak horiek izaki, *Orain herria, orain bakea* ekarpena plazartu genuen iazko azaroaren 14an, konponbide demokratikoan aurrera egin eta gatazka politikoa eta armatuaren eszenatokia negoziatioaren bidez gainditzeko. Azaroaren 14an publiko egin genituen gure asmoek ibilbide bat izan dute ondoren: abenduaren 30ean Gasteizko parlamentua; Rodriguez Zapatero eta Jacques Chirac presidenteei gutuna zuzendu genituen; hala nola, Nazio Etabaida Gunean akordio zabala sinatzean». Horixe da Batasuneko kideek egungo egoeraren inguruan egiten duten analisia, eta horren berri emateko prentsaurrekoa eskaini zuten herenegun arratsaldean Olarrain auzoan, Joxi Zabala eta Joxean Lasa tolosarrak gogorarazten dituen oroitariaren aldamenean. Propio aukeratutako lekua, hura, «Euskal Herriak hainbeste urtean bizi izan duen eta oraindik ere bizi duen salbuespen egoera islatzeko».

EAJk hauteskundeak aurreratu izanak «testuinguru horretan, giroan sortzen ari zen dinamika eten ahal izatea» du helburu haien ustez: «Herritarren gehiengo elkarrizketa eta negoziatioaren bitartez gatazka konpontzeko prozesuari heldu behar zaiola eskatzen ari da EAJ. Ibarretzek, lehentasuna jokatzeari eman dio... hauteskundeetan jokatzeari. Beraz, jokatzeko hautua egitearekin hauteskunde ez demokratikoen jokoan sartzeko erabakia egin zuen EAJk, eta, halaber, osatuko litzatekeen parlamentu ez demokratikoaren kudeaketaren aldeko agertu dira. Alderdien Legearen erantzukizuna PPrena eta PSOERena bada ere, EAJ prest dago egoera hau kudeatzeko».

Ildo horretan, Batasunari botoa emateko zertarako balio duen argitzen du Espainiako Gobernuak legez kanpo utzitako alderdi politikoko horrek: «Ilegalizazioari erantzuten zaio Batasuna bozkatzuz: Alderdien Legea inposatu nahiz lege honetatik etekinak atera nahi dituztenen aurrean, euskal herri-

tarren erabakiak errespetatuta izan behar duela erakusteko bozka eraginkorra da gurea». Beste arrazoi bat ere aurkeztu du: «Bakearen alde egiten da Batasuna bozkatzuz: bake prozesua martxan jartzeko ezker abertzale indartsua behar dugu eta Anoetako proposamenari bultzada sendoa eman behar zaio hauteskundeotan».

Ilegalizazioa salatzen

Apirilaren 17ko hauteskundearen garrantzia «begibistakoa» da ezker abertzaleko kideen hitzetan, eta Tolosaldeko Batasunak ekimen ezberdinak antolatu ditu, nola edo hala, EAEko hauteskundeak giroten hasteko: «Hauteskunde antidemokratikoen izaera tarteko, akanpada deia dugu. Anoetako udaletxe aurrean izango da,

EGITARUA ▶

«Hauteskunde erabat antidemokratikoen kanpaina hasia den honetan», Tolosaldeko Batasunak ekimen ezberdinak antolatu ditu *Eskubide zibil eta politikoen alde, ilegalizazioaren ez!* lelopean. «Jai giroan, aldarrikapenekin bat egin nahi izanez gero, hona hemen hitzorduak»:

GAUR

19:30. Akanpadaren hasiera, Anoetako udaletxe aurrean. Ondoren, gerturatu direnei harrera.
21:30. Afaria.

BIHAR

12:00. Giza-katea abiatuko da oinez Anoetatik Tolosara. Giza-katea Belate sarrerara iristean, eskualdeko manifestazio gisa jarraituko du Tolosako kaleetan zehar.
17:15. Ordiziako plazatik, *Ibarretxe: inposaketarik ez! AHT gelditu! Herriari entzun!* lelopean, 18:00etan abiatuko den manifestaziora trenez elkarrekin joateko deia egin dute.

ASTELEHENA

20:00. Mitin nazionala Trianguloan. Rafa Diez eta Karmele Aierbe ariko dira hizlari.

bertan, EAJ baitago alkatetzan herriaren hitza errespetatu gabe». *Eskubide zibil eta politikoen alde, ilegalizazioaren ez!* deitu diote asteburuari.

hilberriak ▶ eskelak hartzen dira: 19:00ak arte • 943 65 56 95 • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

Maria Mujika Urdepilleta

ANDREA

Atzo hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Bere anaia: Patxi (+); ezkon ahizpa: Maria Ezkurra (Joxeren alarguna); ilobak: Patxi eta Pakita, Joxe Mari eta Pili, Jexus eta Axun, Joxepi eta Martin, Axun eta Iñaki; lehenagusiak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitutz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitetzela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Hernaldeko ANDRE MARIA ZERURATZEA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea • Ezkamdien baserria oharra • Gorputz beila Tolosako Funeraria Vascongada beilatzean egongo da, gaur ostirala 10:45ak arte

HERNIALDE, 2005eko apirilaren 1a

✚ ESKERTZA ▶

JOSE SAN SEBASTIAN AGUIRRE jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hiletara elizkizunetara etorri zirenetan guztio.

Belauntza, 2005eko apirilaren 1a

AMEZKETA ▶

Bertso afarirako txartelak salgai udaletxean

Amezketako Kultur Astearen baitan bertso afaria egingo da hilaren 8an, 21:00etan, Mikel Mendizabal, Bixente Gorostegi eta Igor Elortza bertsolariekin. Txartelak salgai daude hilaren 5a arte, 10 eurotan udaletxean.

ANOETA ▶

Txakurrak eta OGT taldeak Gaztetxean

Gaur gauean, 23:00etan hasita, bi musika talderen emaldia izango da Anoetako Gaztetxean. Lasarteko Txakurrak taldea eta Larrabertzuko OGT taldea ariko dira.

IPIUIN KONTALARIA ▶

Nerea Herrarte Abaltzisketan eta Oreindainen

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Nerea Herrarte ipuin kontalariaren saioak izango dira gaur arratsaldean. «3 urtetik 100 urte arteko ume eta gazte guztiei» zuzenduta. 17:00etan Abaltzisketako Kultur Etxean ariko da eta ondoren, 18:15ean, Orendaingo udaletxeko areto nagusian.

VILLABONA ▶ MENDIA

Aizkardiren 37. Ibilaldia antolatu dute etzirako

43 kilometroko ibilbidea izango du; irteera goizeko 6:30ean Villabonatik

IMANOL GARCIA

Aizkardi mendizale elkarteak 37. Aizkardi Ibilaldia antolatu du etzirako. Goizeko 6:30ean hasiko da martxa elkarteko egoitza ondotik eta 43 kilometroko ibilbidea du, leku berdinean amaituz. Ibiltariak hamar bat ordu beharko dituztela mrtxa burutzeko kalkulatu dute antolatzaileek. Izen-ematea dohainik da eta Internetez egin daiteke (www.aizkardi.galeon.com helbidean), telefonoz (943 69 44 58 zenbakian) edo ateratzeko egun bertan. Izena ematerakoan izena eta bi abizen eman behar dira, federatuta dagoen ala ez adierazi, eta federatuta izanez gero, klubaren izena.

Aizkardiren martxa 4. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuitorako baliagarria da. Bestalde, ibilaldia bukatzen duten partaideen artean, men-

diko materiala zozketatuko da. Dutxa zerbitzua ere egongo da nahi duenarentzat. Jan edanak parte-hartzaileen kontu izango dira. Antolakuntzak gela bat prestatuko du koltxonetekin bezperan bertan lo egin nahi dutenentzat. Zerbitzu hau erabili nahi dutenek antolakuntzari jakinarazi behar diote telefonoz edo posta elektronikoz.

Villabonan hasiko da ibilaldia. Gero Zizurkil eta Aduna herriak zeharkatu eta Andatza gailurrean lehenengo kontrola. Ondoren Lasarte-Oria zeharkatu eta Santa Barbara gailurrean bigarren kontrola. Herriak jaitzi eta ondoren Onddi gailurrera —beste kontrola—. Adarrako gailurra pasatu eta gero Lapurtxulora —kontrola—, Leitzarana (Otita zubia), San Esteban, Lastur, Amasa eta Villabonan bukatu. Guztira, 2.050 metroko desnibela izango du ibilaldiak.



Villabonan hasi eta bukatuko da 43 kilometroko ibilbidea. HITZA

KONTXI ALUSTIZA ▶ IBILTARIA

«Gustuko dut mendia; lasaitasuna ematen dit»

«Zazpigarren aldia edo» izango da etzikoarekin Aizkardiren ibilaldian jarraian parte hartzen duena Kontxi Alustiza billabonatarra.

Nolatan aterazen zara Aizkardi martxan?

Asko gustatzen zait mendira joatea. Aizkardik antolatzen dituen mendi ibilaldiartara joaten naiz eta honetara ere bai. Beste martxa luze batzuetan ere parte hartu izan dut: Ernio-koa, Itziarkoa, 14 ordukoa, Fortunakoa, San Inaziokoa...

Asko gustatzen zait mendia. Lasaitasuna ematen dit eta asteburua aprobetxatzeko modu bat da, egunerokotasunetik at.

Prestaketa berezirik egiten duzu?

Ez dut ezer berezirik egiten, nola Aizkardikoekin mendi martxetara joaten naizen eta



I. GARCIA

askotan ere Tolosara joaten naiz oinez, han egiten dut eta lan. Tartean Amasa aldera ere joaten naiz ibiltzera.

Zer gomendatuko zenioke lehenengo aldiz ibilaldia egin behar duenari?

Aurretik ibili gabe ez ateratzeko. Bestela babak direla eta ezin duzu egin. Oinetako eta galtzerdi berriak inoz ez, erabilitakoak eraman behar dira.

Bakarka edo taldean?

Mendira joaten garen lagunekin ateratzen naiz. Segurtasun bat ematen dizu koadrilan joateak. ◀



Villabona - Kultura



— ANTZERKIA —

KANPINGAGS TALDEA

'EZETZ LEPOA

JARRI'

antzezlan

Apirilak 1 ostirala • gaueko 22:30ean

GUREA ARETOAN



Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)



Tovar
Tolosa, 1991



- Etxeko altzariak. **bede** ALTZARIAK
- Ordenagailuz egindako proiektuak. Tel.: 943 65 29 01
- Armairu enpotratuak neurritara. Lizardi poeta, 2
lo egiteko eta atsedean hartzeko onena **TOLOSA**

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

BIDEGOIAN ▶ KIROLA

VI. Rallysprint Azpeitia Ikasberri lasterketa igaroko da bihar

Azpeititik abiatuko da 15:00etan Errezil-Bidegoian errepideruntz eta lau ordu iraungo ditu lasterketak



Aurreko urteko edizioan Rallysprint lasterketak ere jende andana bildu zuen Bidegoianen. HITZA

NOELIA LATABURU

Bihar Bidegoiango errepideak VI. Rallysprint Azpeitia-Ikasberri lasterketan parte hartuko duten gidarien autoak ziztu bizian igarotzen ikusiko ditu. 50 lagun inguruk hartuko du parte lasterketa honetan, Euskal Rallysprint eta Euskal Junior Rallysprint lasterketarako

puntuagarria izango dena. 82.400 kilometrok osatzen duten ibilbidea —Azpeitia eta Bidegoian arteko GI2634 errepidea— etapa bakarrean burutuko da, lau orduko iraupenez, asko gutxi.

Autoen festaren jardunaldia goizean goiz hasiko da, izan ere pilotok euren kotxeak aurkeztu beharko dituzte Azpeitiko

Epaileen plazara, non behin-behineko partaideen autoen berrikusketa burutuko den. Honen ostean, 12:00etan, aurkeztuko dute behinbetikoen zerrenda. 14:00etan, berriz, auto hauek irteera gunean bilduko dira eta, ordubetik beranduago, emango dio hasiera lehen lasterkariak VI. Rallysprint Azpeitia-Ikasberri lasterketari.

SARIAK ▶

Sailkatuen artean 2.400 euro banatuko dira. 20:00etan emango dira jakitera irabazleen izenak; 20:30ean burutuko da sari banaketa Azpeitiako Epaileen plazan.

SCRATCH SARIAK

1. sailkatua. 500 euro eta domina.
2. sailkatua. 400 euro eta domina.
3. sailkatua. 300 euro eta domina.
4. sailkatua. 200 euro eta domina.
5. sailkatua. 100 euro eta domina.

MAILAKAKO SARIAK

1. sailkatua. 200 euro eta domina.
2. sailkatua. 150 euro.
3. sailkatua. 100 euro.

JUNIOR GIDARIEN SARIAK

1. sailkatua. 150 euro eta domina.
2. sailkatua. 110 euro.
3. sailkatua. 100 euro.

Lau ordu inguru iraungo ditu lasterketak. 20:00etan irabazleen izenak jakinaraziko dituzte Azpeitiko Epaileen plazan, hiru mailatan banatuko direnak.

Abiadura festa bilakatuko da, beraz, bihar Bidegoiango errepideetan eta bertan izango dute hitzordua autozale guztiek.

ASTEASU ▶

Ipupomamua proiektuaren hitzarmena sinatu dute

Eraikuntza lanak uda honetan hasi nahi dituzte, 2006ko bukaerarako amaituz

I. GARCIA

Ipupomamua proiektuaren hiru erakunde sustatzaileek, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Asteasuko Udalak, hitzarmena sinatu zuten atzo goizean Donostiako Eusko Jaurlaritzako egoitzan. Ekitaldian erakundeetako ordezkariak izan ziren, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Fernando Tapia Harreman Sozial eta Instituzionalen Foru Diputatua eta Iñaki Amenabar Asteasuko alkatea.

Proiektuak 1.800.000 euroko aurrekontua du eta erakunde bakoitzak herena jarriko du. Asteasuko Udalak, gainera, Lamiategiko lurrak utziko ditu eta proiektu arkitetonikoaren kudeaketa burutuko du. Hiru erakunde hauek eraikuntza lanen jaraipena egingo duen batzordea eratu dute. Obrak uda honetan hasi nahi dituzte eta 2006ko bukararako amaitzea dute helburu.

1. bat gehiago izan
2. nire umea ekarri
3. itzaropena



1. lana
2. nire lagunak
3. planeta



1. enplegu iraunkorra
2. etxebizitza
3. familia



1. erantzunak
2. elkarrizketa
3. aurrera



1. ongizatea
2. maialen
3. bakea



Ilusioz begiratzen diogu denok etorkizunari. Horregatik, eskatzen dizut botoa, Apirilaren 17an. Bakea eta zure beharrei erantzungo dien garapena lortuko dituen eta euskal gizarte osoari ongizate hobea ekarriko dion egitasmo bateratuari bultzatzen jarraitzeko. Nahi duzu. Ahal duzu.

Elkarrekin egingo dugu.

eman botoa



TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03**Berastegi-Elduain.** Medikua:
68 33 61**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Orendain.** Medikua: 65 55 95**Orexa.** Medikua: 68 22 28**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona. Anb.: 00 69 70**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, R. Zabalarreta 1

(Tolosa). 943 67 38 49.

Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza).

112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Urrezko puntuen bila aterako da bihar Ibarra Belabietan

Carnicerias Saenz taldearen aurkako partida erabakiorra izango da; zaleen berotasuna beharko du etxeko taldeak



2004-2005 denboraldiko Ibarra areto futbol taldea. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Denboraldiko partida garrantzitsuena jokatu du bihar etxean, Belabieta kiroldegian, 18:30ean Ibarra areto futbol taldeak Carnicerias Saenz taldearen aurka.

Gasteizko taldea ibartarren arerio nagusietako bat da eta hauen modura azken postuetan aurkitzen da uneotan, beraz, Ibarra taldeak irabazi ezkeror hauetako aurre hartu ez ezik punturik ez batzea lortuko lukete. Bestetik, galdu ezkeror, bost

puntura jarriko lirateke gasteiztarrek eta gauzak asko zailduko litzaizkioke Ibarriari.

Gauzak horrela, 3 izan ordez 6 puntu direla bihar jokatu direnak esan daiteke eta ezin zaizkie inondik inora ihes egiten utzi.

Bestalde, Ibarra izan dituen bajak ere aipatzeko dira; taldeak berreskuratu zuen lasaitasuna galtzea lortu dute baja hauek eta azken partidaren lesionatutako Xavi gehitu behar da orain, taldeak at izango baita denboraldiari geratzen zaizkion partidetan.

Egoera zailen

Hiru dira mailaz jaisten diren taldeak denboraldi amaieran. Horietatik bi Salcedo eta Ribera de Navarra taldeak izan daitezke dituzten puntuak ikusita, eta hirugarrena Jarrilleros, Carnicerias Saenz eta Ibarra taldeen artean egon daitezke.

Zortzi dira liga amaitzeko geratzen diren partidak eta Jarrilleros eta Carnicerias Saenz taldekoek dagozkien atsedenaldiak egin dituzte eta Ibarra ez ditu egin oraindik. Jarrilleros taldekoek 26 puntu, Carnicerias Saenz-ek 24 puntu eta Ibarra 22 puntu ditu uneotan. Bi talde hauek liga amaitu bitartean jokatu behar dituzten partidak ikusita Ibarra aurrea egitea oso posible dela pentsa daiteke. Horretarako, 32 puntu batu beharko lituzkete ibartarrek.

Bere aurkari nagusietako bat izango du bihar Ibarra aurrea aurreratu eta datorren astearen bestea, Portugaleteko Jarrilleros, alegia.

Inoiz baino gehiago, Belabieta kiroldegian zaleen berotasuna nabaritu beharko dute Ibarra areto futbol taldeko jokalariek hil ala bizi izango baita norgehiagoka.



Gaztetxoaren gozamenerako

IBARRA ▶ Etxeko gaztetxoentzat egitarau polita antolatuta du Ibarra Kultura eta Gazteria Batzordeak. Kiki eta Moko pailazoaren ikuskizuna oso arrakastatsua izan bazen, atzo ere aso izan ziren Kultur Etxera gerturatu zirenak *Pirataklown* emanaldi dibertagarria ikustera. Gaur 11:30ean Peter Roberts-en *Marratxo, koloreen iratxo*a ikusteko aukera izango da. I. TERRADILLOS



Musika klasikorako tartea

BERASTEGI ▶ Zortedun dira musika klasikoa atsegin dutenak, izan ere, gaur Berastegiko eskolako jolas gelan mota honetako musika entzuteko aukera izango da. Josu Okiñena pianojolea eta Rasvan Suma biolontxelolea ariko dira 21:00etan hasiko den eta Berastegiko Udalak eta Aldin kultur taldeak Kutzaren laguntzarekin antolaturiko kontzertuan. HITZA

EUSKARA ▶

HPZNak eurekin bildu ere egin nahi ez izatea salatu dute udalek

Nafarroako Gobernuak euskararen alorrean udalei eginiko %40eko murrizketaren berririk ez dute jaso oraindik orain

JAIONE ASTIBIA

Nafarroako Gobernuak bere Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bidez «gure hitza eta iritzia aditzeko inolako asmorik ez dutela erakusten digu» baieztatu zuten eta jokabide hau salatu, Nafarroan Euskara Zerbitzua duten udalen hainbat ordezkari, atzo Iruñeko Hezkuntza Departamentuaren atarian egindako prentsaurreko agerraldian.

Han agertutakoek Nafarroa osoko 24 udal desberdin eta 5 mankomunitatetako ordezkariak ziren, Leitzako eta Aresoko udaletako alkateak ere tartean zirela, Nafarroa Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakariarekin batera. Guztiek ere HPZNaren jokabidea salatu zuten, ustez 1998az georotik zerbitzu horrekin lankidetzatza hitzarmena sinatuta badute ere, haien aldetik «oraindik indarrean dagoen hitzarmen horretan lankidetzarako asmorik ez dugu ikusten», ziotelarik.

Jakitera eman zutenek, Nafarroako Gobernuarekin udal esparruan euskararen erabilera normalizatzeko lankidetzatza hitzarmena sinatuta dute hainbat toki entitatek eta horri segimentera egiteko Jarraipen Batzordea eratu zuten bere garaian, bai gobernuaren (lau lagun) eta bai toki entitateen (zazpi lagun) ordezkariak zirekin. Batzordea eratu zenetik, urtean bi bilera egin izan omen ditu «diru laguntzak banatzeko irizpideak finkatuz, besteak beste», han adierazi zutenek.



24 udal eta 5 mankomunitatetako ordezkariak egin zuten salaketa Hezkuntza Departamentuaren atarian prentsaurrekoan. HITZA

Baina, iaz aurreneko bilera «berandu egin» omen zuten, apirillean, eta bigarrena, berriz, ez zen egin, garai horretan «komunikabideen bidez» jakin zutelarik gainera, hain justu «2005ean toki entitateoi banatzen dizkigun laguntzak nabarmen murriztuko zizkigula, ia %40», zehaztu eta salatu zuten. Ordezkatzen dituzten toki entitateengan zuzenean eragiten duen erabaki horren berri «oraindik orain zuzeneko berririk ez dakigu», zioten: murrizketak izanen dituztela jakin badakiten arren, «gure aurrekontuak prestatu behar izan ditugu, zehazki jakin gabe diru laguntzen murrizketa hori nola aplikatuko zaigun», adierazi zuten. Hau guztia argitzeko, besteak beste Jarraipen Batzordeko idazkari ere baden Julen Calvori, bilera eskaria behin eta berriz egin dionela

baieztatu zuten agerraldian, baina erantzunaren zantzurik ere ez dutela jaso esan zuten. Gauzak horrela, hainbat galdera plazaratu zituzten hantxe bertan, «Lankidetzatza hitzarmen» hori ez dela hala argitzeko: «Nola uler daiteke hitzarmena sinatua izan eta urtearen 4. hilabetean ez jakitea hartu beharreko diru laguntzak murriztuko dizkigutela? Nola ulertu murrizketa horien berri komunikabideetatik jasotzea eta ez ofizialki? Nola ulertu izarko bukaerarako jakin zen bezala jakin, eta bilera eskatu arren, oraindik ere erantzunik ez izatea?», zioten.

Erantzuna argi adierazi zuten, horrelako hamaika erabaki hartzen dituzten egoitza atarian. Eta horixe salatu eta agertu nahi izan zuten atzokoan Iruñean egin zuten agerraldian bildutakoek.

LEITZA ▶ KULTURA

‘Negocios ocultos’ filma botako dute zineman

Londreseko alde ezkutua erakusten du afrikar etorkin baten istorioaz baliatuz

J. ASTIBIA

Gaur bertan, ostiral-hila suertatu da apirila, hasten den hilabete honetako zinema-egitaraua ere prest dute dagonekoz eta gaur-etzitarako *Negocios ocultos* filma proiektatuko dute zineman, 22:30ean eta 19:30ean, hurrenez hurren.

2002ean estreinatuta zuten Stephen Frears zuzendari britaniarraren film hau, 97 minutu irauten duen thriller dramatiko hau. Turistentzat ezkutuan egon ohi den Londreseko ikuspegi iluna ageri da filman: paperik gabeko afrikar etorkin batek, Okwe, (Chi-

wetel Ejiomor aktore britaniarra), hango hotel batean egiten du lan eta errefuxiatu turkiarrak bilatzen aritzen den Senay (Audrey Tautou aktorea frantziarra) du pisukide. Bere bizitzako justuko oreka hori hautsi egiten da, hotel horretako gela batean egiten duen ezusteko aurkikuntzaren ondorioz. Bere nagusiari ezin esan diezaiok deus, poliari ere ez... Bere hurbilekengan eta bere benetako nortasunaren gaineko errealitatearen azalpenaren eragin zuzena du aurkikuntzak.

Horrela, bada, film entretengarria behintzat bai, ikusteko aukera, eskura dago.

KIROLA ▶

Pilotariak txapelketaz txapelketa dabilta

Orain Elgetakoari ere ekinen diote: lau ordezkari izanen ditu Aurrerak honetakoan

J. ASTIBIA

Aurrerako pilotariak asteberuetan ez ezik, astez ere jokatzen dituzte partidua, izan ere hainbat txapelketa martxan izanik, ia guztietan badute ordezkariak: helduen mailan bakarra gutxienez lau sariketetan ari dira parte hartzen.

Horrela, lehenaz gain, gaur bertan, 21:00etan dira Elgetakoan hastekoak, lau ordezkariekin: Aritz Sagastibeltza kaltetan; Ibai Bengoetxea, Unai Ontsaloko eta Mikel Olazabal

heldutan. Esan behar da Olazabalek hurrengo astera atzeratu duela saio hau, lehenagotik gaurko egina zuelako Laudion hitzordua, 19:00etarako.

Kasu honetan azken orduko aldaketak ere badirela eman dute jakitera. Patxi Beteluk eskuak minduta dituelarik, Jokin Barandain ariko baita atzelerari lanetan Olazabalekin.

Bikoteka lau t'erdian Tolosan jokatzen den Garzandiana txapelketan, berriz, Ibai Bengoetxea-Unai Ontsalok, aurrelariak biak, finalerdiak jokatuko dituzte bihar, 11:00etan.

hitza

lagunen
txokoa

ZUK ERE
lagun dezakezu HITZA

943 30 43 46

(goizeko 8:30etik gaueko 20:30era)

Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'LOS CHICOS DEL CORO' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

ANTONIA GOÑI HITZAren harpidedun laguntzaile berastegierra.

Aspek antolatuta astelenean hilak 4ean 16:30ean **Beotiabarren** jokatuko diren pilota partiduetarako bina sarreraren irabazleak diren harpidedun laguntzaileak:

- AITOR HAIZA LETE (Ibarra)
- MANUEL KOLOMO ARREGI (Tolosa)
- ANDRES ARREGI ZINKUNEGI (Villabona)

LASA III.a - ESAIN
Eskuz Banakako Txapelketa

EUGI - APEZTEGIA // TITIN III.a - NALDA III.a

OTAEGI - ARIZMENDI // MURUAMENDIARAZ-BERNA

Tolasaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Orexa. Eriz magoaren magia saioa, udaletxeko ganbaran, 18:00etan.

DEIALDIAK

Alegia. 10:00etatik 13:00etara. KZgunean tutorea izango da; Aste Santuko oporren ostean KzGunea berriz irekiko da.
Aitzo. 09:00etatik 13:00etara. KZgunean tutorea izango da gaur.
Tolosa. Topagunetik irteera antolatuta Bizarritzeko karts-etara. 14:30ean San Frantsisko pareko autobus geltokitik aterata.

Tolosa. Apirilaren 10ean 51ko kintoak elkartuko dira. 11:00etan meza San Frantzisko elizan hildako kintoen alde eta 14:00etan bazkaria Mendi-alde jatebean. Izen-ematea 943 65 45 92 (Jose Maria Tolosa), 943 52 54 41 (Jose Mendizabal) eta 943 65 17 99 (Mendi-alde jatebea).
Tolosaldea. AHT Gelditu! Elkarlanak deitutako manifestaziora ekarrekin joateko deia egin du Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak: 17:15eko trera hartzekotan gelditu dira. Manifestazioa 18:00etan abiatuko da Ordiziako plazatik, **Ibarretxe: inposaketarik ez! AHT gelditu! Herriari entzun!** lelopean.

ERAKUSKETAK

Tolosa. *Antrophozooformak*, Aitor Ruiz de Eginoren eskultura erakusketa ikus daiteke Aranburu Jauregian apirilaren 16a bitarte 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenera izan ezik.
Tolosa. Ana Jesus Ansorena tolosarraren keramika lanak jarrita izango dira Saikin tabernan, hilaren amaiera arte.
Tolosa. Mikel Azpillaga pintoreak 2003 eta 2004 urteetan egindako pintura lanak erakutsiko ditu Aranburu Jauregian apirilaren 23a bitarte. Egunero ikus daiteke, 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenera izan ezik.

HAUTESKUNDEAK

Tolosaldea. Batasunak

deituta, 19:30ean akanpadaren hasiera Anoetako udaletxe aurrean eta 21:30ean afaria bertan, *Eskubide zibil eta politikoen alde, ilegalizatorik ez!* asteburuaren baitan. Bihar, 12:00etan giza-katea Anoetatik Tolosara. Hara iristean eskualdeko manifestazio gisa jarraituko du. 17:15ean trenetx Ordiziara joateko deia, AHT-ren aurkako manifestaziora. Astelehenera, 20:00etan, mitin nazionala Rafa Diez eta Karmele Aierberekin.
Tolosaldea. EAJ-EAren mitina, bihar, 18:00etan Leidor zinema aretoan. Juan Jose Ibarretxek, Joseba Egibarrek eta Unai Ziarretak jardungo dute.

HITZALDIAK

Orendain. Agerre baserriko Pakita eta Ernestok *Orendaino iraganari begira: eliza, udaletxea eta Orendain abizenaren historia* izeneko hitzaldia eskainiko dute, udaletxeko areto nagusian, etzi, mezaren ostean.

IPIIN KONTAKETAK

Abaltzisketa. Nerea Herrarteren ipuin kontaketa, Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta: 17:00etan Liburutegian.
Orendain. Nerea Herrarte ipuin kontalariaren saioa, Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta: 18:15ean, udaletxeko areto nagusian.
Tolosa. *Berunezko soldaduboa.* 12:00etan Udal Haur Liburutegian.

KIROLAK

GAUR

Eskupilota
▶ Gipuzkoako Irekia lau t'erdian. Errandonea-Nagore (Beotibar 19:30).

Areto futbola

▶ Ayete-Cash Converters (1. Maila A. 21:00, Lasarte).
▶ Laskorain-Eskolapiok B (1. Maila A. 21:15, Berazubi).
▶ Laskorain-Tinta Billabona (2. Maila A. 22:15, Berazubi).

BIHAR

Pilota
Garziandia Txapelketa.



Olatuen orrazkera

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Maider Muñagorri tolosarra ez zen urrutira joan Aste Santutako oporretan, baina ez du horregatik ikusgarritasunik galtzen lehiaketara bidalitako argazki honek. Larunbat Santuan atera zuen argazkia, agi denez, hain ezaguna den Donostiako Haizeen Orrazian. Olatuak ibiltokiaren hormaren aurka jotzerakoan sortutako zipriztinak *harrapatu* zituen bere kameran Maiderrek, atzean Eduardo Txillidak egindako eskulturak ikusten direla. Haizea izan ezik, eskulturek olatuak orrazten dituztela dirudi.

Finalerdiak (Tolosa. Beotibar 11:00)

▶ Mikelperizena-Zubieta/Bengoetxea-Ontsalo.
▶ Berasaluze-Dominguez/Cerezo-Huarte.

Areto futbola

▶ Valdetires Meiras-Hegoalde (Emakumezkoen Ohorezko Maila. 19:00, Ferrol).
▶ Lauburu Ibarra-Carnicerias Saenz (1. maila Nazional A. 18:30, Belabietan).
▶ Trans. Lakunza-Oiartzun (Autonomikoa. 18:30, Olaederra kiroldegia).

Futbola.

▶ Cultural Durango-Tolosa (Jubenilen Euskal Liga. 17:00, Durango).
▶ Tolosa-Real Sociedad (Kadeteen Euskal Liga. 16:30, Berazubi).
▶ Antzuola-Amaroz (Lurraldekako 2. maila. Kopa. 2. taldea. 16:00, Antzuola).

Futbol 7.

▶ Zuma GH-Ibarrako Gazte Asanblada (1. maila A. 18:00, Hernani 1).
▶ Ikema-Lanbroa Dickens

(2. maila A. 17:00, Hernani 1. Zazpigarren jardunaldia).

ETZI

Futbola

▶ Ordizia-Tolosa (Gorengo Maila. 11:30, Altamira).
▶ Legazpiko Gaztetxea-Intxurre (Lurraldekako 2. maila. Igoera fasea. 17:00, Legazpi).

Futbol 7

▶ Lanbroa Dickens-Pub Oasis (2. maila A. 11:00, Beasain 2).
▶ Amazkar taberna-Bar Shanti Kirolak (2. maila B. 12:30, Urnieta 2).

MUSIKA

Anoeta. Txakurrak eta OGT. Gaztetxean 23:00etan.
Berastegi. Musika klasikoko kontzertua izango da 21:00etan eskolako jolas gelan. Josu Okiñena pianoan eta Razban Suma biltonxeloan izango dira.

ZERBEZA FESTA

Alegia. Zerbeza Festa gaur 19:00etatik igandea bitarte

izango da zabalik, herriko frontoian. Intxurre futbol taldearen eskutik. Festaren harira, DJ Bull ariko da gaur, 00:00etatik aurrera, Ixkiña tabernan.

ZINEMA

Gaztelu. *La vida de Brian.* (AEB, 1979). 19:30etik aurrera, Kontzejuan.
Leitza. *Negocios ocultos.* 22:30ean zineman.
Tolosa. *Los chicos del coro.* Gaur eta bihar, 22:30ean hasita, Leidor zineman.

ZORION AGURRAK ▶

HITZA,
zorion agurren
tartea

HITZAren egotzetara:
Araba etorbidea, 5 behe
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!